PROGRAMA:

# *TRUKE EGUNAK ERMUKO EMAKUMEEN TOPALEKUAN*
# DÍAS DE TRUEQUE EN LA CASA DE LA MUJER DE ERMUA



*Ermuko Emakumeen Topalekuko truke-egunak emakume eta gizonen berdintasunerako udal politikaren esparruko programa zabalagoaren baitako jarduera berri bat da, emakumeen partaidetza sustatzeko eta jabekuntza-espazio hau dinamizatzeko. Berdintasun Sailak antolatzen du, Ermuko Emakumeen Topalekuko langileek kudeatuta, eta emakumeentzako beste trebakuntza-jarduera batzuetan eta Jabekuntza Eskolaren jardueretan oinarritzen da, kontsumo arduratsuaren garrantziaz, ingurumenarekiko errespetuaz, objektuen berrerabileraren garrantziaz eta garapen jasangarriaren balioaz, besteak beste, sentsibilizatzeko.*

*Bi hilean behin egun batzuez soilik Topalekuan izango den truke-espazio bat da, ohiko hedabideen bitartez (kartelak, web orria…) aldez aurretik iragarriko den aste bateko bost lanegunez zehazki. Ordutegia Topalekuaren arreta-ordutegia izango da, goizez eta arratsaldez, ostiralean izan ezik.*

*Inolako irabazi-asmorik gabeko dohaintzak eta trukeak izango dira, eta ez da ordainketarik ez kobrantzarik egingo, objektuen trukea baizik. Jendeak musu-truk entregatuko ditu jada erabiltzen ez dituen baina erabiltzeko moduan eta garbi dauden objektuak, ordainetan ezer jaso gabe truke-programarentzat emanez. Hilean objektu bat finkatuko da: lepo-zapiak, jostailu txikiak, kaxak eta abar. Jasotzen diren objektuak Topalekuan egongo dira ikusgai iragarritako astean (adierazitako bost egunez),* ***irabazi-asmorik ez duen*** *edozeinen eskura.*

*Truke hauetan parte hartzeko izena eman beharra dago; izen-ematea lehen dohaintzarekin batera egingo da, pertsona berak egiten duen dohaintza bakoitzean eguneratuko delarik. Parte hartzen dutenekin talde bat sortuko da. Pertsona bati baino gehiagori interesatzen bazaio objektu bera, taldeko kide direnek izango dute lehentasuna,*

Los días de trueque en la Casa de la Mujer de Ermua son una nueva actividad dentro de un programa más general para fomentar la participación de las mujeres y para la dinamización de este espacio de empoderamiento, en el marco de la política municipal para la igualdad de mujeres y hombres. Están organizados desde el Departamento de Igualdad y gestionados por el personal de la Casa de la Mujer de Ermua, y tienen su origen en otras actividades formativas y de la Escuela de Empoderamiento para mujeres, de sensibilización sobre la importancia de un consumo responsable, de respeto por el medio ambiente, de la importancia de la reutilización de los objetos y del valor del desarrollo sostenible, entre otros.

Es un espacio de trueque que funciona en la Casa durante unos días cada dos meses, en concreto, durante los cinco días laborables de una semana que se anuncia con antelación a través de los medios habituales de divulgación: carteles, página web... El horario es el de atención de la Casa, de mañana y de tarde (excepto el viernes).

Se trata de donaciones y trueques sin interés lucrativo alguno, en los que no se realizan pagos ni cobros, sino intercambio de objetos. Básicamente se trata de que la gente entregue desinteresadamente objetos que ya no utiliza pero que están en buen estado de uso y de limpieza, donándolos para el programa de trueque, sin obligación de contraprestación.
Cada mes se establece un objeto diferente: pañuelos de cuello, pequeños juguetes, cajas...etc. Los objetos recogidos se exponen en la Casa en la semana -cinco días- establecida, quedando a disposición de quien pueda tener **interés no lucrativo** en ellos.

Es necesaria una inscripción como participante de estos intercambios, que se realiza con la primera donación y se va

*beraiek ere trukea egiteko objektu bat entregatu dutelako. Interesdun guztiek baldintza hori betetzen badute, zozketa bidez ebatziko dute Topalekuko langileek.*

*Garrantzitsua da azpimarratzea pertsonek* ***eman*** *egin behar dituztela objektuak,* ***ordainetan ezer hartzeko asmorik gabe, musu-truk*** *entregatzen dira, beste pertsona batzuek eraman eta erabil ditzaten. Objektu bat entregatu duen pertsonak ez du beste objektu bat derrigorrez eskuratu behar, trukea ez dago zertan berehala egin. Parte hartzen duen pertsonak, erakusketako edozein objektu eraman dezake berari interesatzen zaionean edo baliteke inoiz ezer ez eramatea, eta objektuak entregatu besterik ez egitea… Trukea egiteko eskubideak programa bereko beste objektu eta erakusketa batzuetarako ere balio du.*

*Horregatik, programa hau, beste batzuk erabili ahal izateko objektuak entregatzen dituzten pertsonak baldin badaude bakarrik egin ahal izango da.*

*Ekintzaren helburu nagusiak ondorengoak dira:*

- *Gure kontsumo-ohituren inguruan hausnarketa piztea, gure planeta iraunarazteko gauzak berrerabiltzea zein garrantzitsua den konturatu gaitezen.*
- *Kontsumoaren arloan jokabide aktiboagoa eta jabetuagoa sustatzea, generoaren ikuspegitik.*
- *Hondakin gutxiago sortzen laguntzea, jada erabiltzen ez ditugun baina ondo dauden gauzei beste aukera bat emanez.*
- *Berrerabilera, truke eta birziklapenaren arloan dauden esperientzia berriak ezagutzera ematea.*
- *Adinez, jatorriz eta abarrengatik ezberdinak diren beste emakume*

actualizando con cada donación de esa persona. Con las participantes se irá conformando un grupo. En caso de que más de una persona tenga interés en el mismo objeto, se dará prioridad a aquellas personas que forman parte del grupo, que son las que han entregado algún objeto para el trueque. Si todas las interesadas tuvieran la misma “condición”, el personal de la Casa realizaría un sorteo.

Es importante insistir en que las personas **ceden** los objetos, **los entregan desinteresadamente** para que otras personas puedan llevárselos. No necesariamente la persona que lo cede ha de obtener otro objeto a cambio, porque el trueque tampoco tiene que ser inmediato. La persona participante se puede llevar algún objeto de la exposición cuando le interese, o puede no llevarse ninguno nunca y solo entregarlos… El derecho a trueque se mantiene válido para otros objetos y exposiciones del mismo programa.

Por ello, el programa solamente se puede realizar si hay personas que entregan objetos para que otras los puedan utilizar.

Los principales objetivos del programa son:

- Generar una reflexión sobre nuestras pautas de consumo, para hacernos conscientes de la importancia de la reutilización en la sostenibilidad del planeta
- Promover una postura más activa y empoderante en el ámbito del consumo, desde una perspectiva de género
- Contribuir a generar menos residuos, dando a los objetos que ya no usamos, pero están en buenas condiciones, una nueva oportunidad
- Dar a conocer nuevas experiencias de reutilización, trueque y reciclaje
- Favorecer el intercambio y encuentro con otras mujeres diversas (en edad,

*batzuekiko elkartrukeari eta topaketari bidea zabaltzea.*

- *Emakumeen Topaguneak burutzen dituen jabekuntzarako beste programa batzuk eta berdintasunaren aldeko ekintzak ezagutzera ematea.*

*Programa berria da, hots, 2015eko azaroan sortua, horregatik etengabe ebaluatzen joango gara eta moldatzen eta egokitzen, behar denean.*

*Programa honek behar bezala funtziona dezan, **hasierako baldintza batzuk** ezarri dira. Ondorengoak dira:*

1. *Behin trukerako objektuak eta egunak ezagutzera ematen direnean edozeinek entregatu ahal izango du adierazitako objektua eta objektu hori bakarrik Topalekuan. Ez da beste objekturik jasoko. Objektuak trukea egin aurreko asteko laneguntan jasoko dira.*
2. *Ez da jasoko ezta ere Emakumeen Topalekuko langileen ustez erabiltzeko moduan eta garbi ez dagoen objekturik.*
3. *Objektua jasotzean fitxa bat irekiko da eta dohaintza egin duen pertsona programako taldean sartuko da. Pertsona bakoitzak nahi beste objektu eman ditzake.*
4. *Bidegabeko edo abusuzko egoerarik egon ez dadin, pertsona bakoitzak eman duen beste objektu hartu ahal izango du gehienez, ez gehiago.*
5. *Ermuan bizi ez direnek herrian bizi direnen baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute programan.*
6. *Objekturen bat eramateko azken eguna truke-asteko ostirala izango da, eguerdiko 13:30ean. Behin objektua hartu ondoren, ezingo da itzulketarik edo erreklamaziorik egin.*
7. *Truke-astea amaitu eta hurrengo asteko astelehenean interesik sortu ez duten objektuak oraindik Topalekuan*

origen…)

- Dar a conocer otros programas para el empoderamiento y actividades por la igualdad de la Casa de la Mujer

Se trata de un programa de nueva creación (noviembre 2015), por lo que se irá realizando una evaluación continua, y en caso necesario, un reajuste, de su funcionamiento.

Se han elaborado una serie de **condiciones iniciales** para su correcto funcionamiento, que son las siguientes:

1. Una vez divulgados los días y los objetos para el trueque, cualquier persona puede entregar en la Casa el objeto establecido y solamente ese objeto. No se recogerá ningún otro que no sea el previsto. La recogida se hará los cinco días laborables de la semana anterior a la de trueque.
2. Tampoco se recogerán los objetos que el personal de la Casa de la Mujer considere que no están en el necesario buen estado de limpieza y conservación.
3. En el momento de la recogida se abrirá una ficha y se dará ingreso a la persona "donante" en el grupo del programa. Una misma persona puede donar tantos objetos como quiera.
4. Para evitar situaciones injustas o de abuso, cada persona podrá recoger tantos objetos como haya donado, y no más.
5. Quienes no vivan en Ermua podrán tomar parte en el programa en las mismas condiciones que las residentes locales.
6. El último día para llevarse algún objeto será el viernes a las 13:30 horas. Una vez recogido, no se gestionarán devoluciones ni reclamaciones.
7. Tras el cierre de esa semana de

*badaude, birziklapen edukiontzi batean utziko dira eta/edo irabazi-asmorik gabeko elkarteren bati emango zaizkio berrerabili edo, azkenean, birziklatzeko.*

8. *Emakumeen Topalekuko langileek partaideen iradokizunak, proposamenak, kexak eta aintzatespenak entzungo dituzte eta horiek adierazteko orri bat izango dute nahi duenaren esku. Edozein pertsonak, partaide ala ez, programa hobetzeko iradokizunak, trukerako objektuak eta komenigarri iruditzen zaion guztia proposatu ahal izango du.*

trueque, el lunes de la semana siguiente, los objetos que no hayan generado interés y que estén en la Casa se depositarán en alguno de los contenedores de reciclaje y/o se entregarán a alguna asociación sin ánimo de lucro para su reutilización o reciclaje final.

8. El personal de la Casa de la Mujer escuchará y pondrá a disposición de quien lo desee una hoja para realizar sugerencias, propuestas, quejas o reconocimientos respecto al programa. Cualquier persona, participante o no, podrá sugerir mejoras, objetos para intercambios y todo lo que considere conveniente al respecto.

*Informazio gehiago nahi izanez gero, edota parte hartzeko:*
*Casa de la Mujer - Emakumeen Topalekua*
*Izelaieta kalea 12, 48260 ERMUA*
*Tfnoa. 943171030*
*igualdad2@udalermua.net*

Más información y participación en:

Casa de la Mujer - Emakumeen Topalekua
Izelaieta kalea 12, 48260 ERMUA
Tfnoa. 943171030
igualdad2@udalermua.net